

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak hil honen amaieran Hondakinen Kudeaketa Plan berriaren oinarritzko dokumentua aurkeztuko du

Hala iragarri du Eva Garcia Balaguer zuzendari nagusiak Izarreibarko materia organikoaren bilketa aurkezteko ekitaldian

Jueves, 04 de febrero de 2016

Nafarroako Gobernuak otsailaren amaieran Foru Komunitateko Hondakinen Kudeaketako Plan Integratu berriaren oinarritzko dokumentua aurkeztuko du, ostegun honetan Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusi Eva Garcia Balaguer-ek iragarri duenez.

Zuzendariak Izarreibarko Mankomunitateko materia organikoaren bilketa-datuen aurkezpenean parte hartu du (bosgarren edukiontzia), bilketa-mota hori ezarri den lehen sei hilabetetako datuak, hain zuzen (2015 eko ekaina-abendua). Garesen egin den ekitaldi horretan ere, Izarreibarko Mankomunitateko lehendakari Sabina Garcia Olmeda eta erakunde horretako hondakin eta ingurumeneko arduradun Oscar Rubio Unzué izan dira.

Garcia Balaguer-ek egindako agerraldian gogorarazi du, hondakinak birziklitzeko arloan Nafarroak gaur egun duen erronka nagusia materia organikoa bereiztea dela, hau da, etxeko zaborraren % 40 inguru dena.

Europar Batasuneko araudiaren arabera, 2020rako hondakin horien % 50 jaso behar da.

Zuzendari nagusiak adierazi duenez, helburu hori lortzeko beharrezkoa da herritarren laguntza izatea, eta partaidetza hori suspertzeko, agintari eta kudeaketa publikoko langileek lan egin behar dutela esan du, "kalitate handiagoko bilketa-sistemak ezartzeko, produktu horiek birsortzen lagunduko dutenak".

Azkenik, Nafarroako Hondakinen Kudeaketako Plan Integratu berriaz hitz egiten du, eta haren zirriborroa Gobernuak otsail amaieran aurkeztea espero du, eta erantsi duenez, "plan horrek anbizio handiko helburuak proposatzen ditu", Europako araudiarekin bat etorriz.

Izarreibarko bizilagunen % 66k materia organikoa bereizten du

Gaurkoan azaldutako datuen arabera, Izarreibarko Mankomunitateko udalerrietan bizi diren 11.281 pertsonatik 7.452 pertsonak (3.000 familia) materia organikoaren borondatezko bereizketan parte hartzen dute. Kasuen % 38,9an herritarrekin ezin izan da hitz egin oraindik, eta % 3,43 ren kasuan bizilagunek ez dute parte hartzeko asmorik agertu.

Elkarlan horri esker, Bosgarren Edukiontzia ezartzeko lehen sei

hilabeteetan 284 tona materia organiko jaso da, hau da, 50,8 kilo biztanleko mankomunitateko biztanle-kopurua aintzat hartuta.

Gainera, bereizketaren kalitatea egokia da, "inpropioen" % 2 baino ez baita detektatu (legeak % 10 izatea uzten du).

Bildutako materia organikoa Mendigorriako Biomendi lantegian tratatu da, eta bertan 108.230 kw lortu dira eta 124.368 kw termiko. Kopuru horiek 21 etxebizitzaren hornidura elektrikoaren parekoak dira eta 16 etxebizitzaren hordinura termikoaren parekoak.

Izarreibarko Mankomunitatea 13 udalerrik osatzen dute, eta honako toki hauetan banatuta daude: Izarreibarko ibarra (Artazu, Etxarren, Girgillao, Obanos eta Gares), Erdialdea (Artaxoa, Berbintzana, Larraga eta Miranda-Arga), Nekeas mendilerroa (Mendigorria), Mañeruko ibarra (Zirauki eta Mañeru), Gesalazko ibarra (Muez) eta Jaitz.